

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko uztailaren 2a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Maria Jesus Petrikorenaren paisaiak ikusgai Kultur Etxean.

Fermin Perez-Nievas • «Alderdi Karlistaren printzipioak sozialistak ziren jatorrian».



Indart
anaiak:

primerako
ganadudunak

Inaxio eta Juan Antonio Indart anaiak ganaduzale oso ezagunak dira Euskal Herrian. Ez alferrik Nafarroako Gobernuaren eta nazioartekoen sariak jaso dituzte hainbatetan, dutenazienda ederragatik: Burgete arrazako zaldiak edo Pirinioetako arrazako behi eta hazitarako zekorrak. Sekretua hauxe omen da: belardi onak izatea, eta eguna argitzearekin lanean hasi eta gaua arte aritzea.

Lizarra ●

Gaztetxearen etorkizuna

Gaztetxea eraikitzeko lanak 1997an hasi ziren, eta orain geldirik daude

Lizarrako gaztetxearen etorkizuna zehaztu gabe dago. Udalean sartuko den talde berriak egoera aztertu beharko du eta gaztetxearen inguruko erabakiak hartu beharko ditu. Eraikina amaitzeko 200 milioi pezeta beharko dira (8 milioi libera).



Lizarrako gazteek Armadaren eraikina zena egokitu dute, gaztetxerako.

OSKAR MONTERO

LIZARRAKO GAZTETXEAREN historiak bi alderdi ditu: gazteek urteetan egindako lana eta Udalak gaztetxearekin izan duen harremana. Bi bide horiek une berean hasi ziren, baina urteetan ezadostasunak izan dira nagusi, eta gazteek beren bidea hartu dute eta Udalak beste bat: gazteek gaztetxe alternatibo bat sortu dute 1996a arte Armadaren kuartela izan zen eraikinean; eta udalak, berriz, eraikin moderno bat jarri zuen martxan 1997an. Egun, eraikin horretan hiru urtez lanean aritu eta gero, lanak eten dira. Etxea amaitu gabe dago, eta bukatzeko 200 milioi pezeta behar dira (8 milioi libera). Bihar osatuko den udal be-

rriak gaztetxearen etorkizuna erabaki beharko du.

Lizarrako Gazte Asanblada 1995ean osatu zen. Orduan Udala Egia jauregia gaztetxe bihurtzeko prest zegoen. Horretarako, bilerak egin ziren herriko zenbait gazterekin. Gazteak elkarlanean hasi eta Gazte Asanblada osatu zuten. Udalak handik gutxira, ezustean, erabaki zuen Egia jauregia, gaztetxe izan beharrean, liburutegi izateko egokitzea. Berria jakin bezain pronto, gazteek hainbat protesta egin zituzten. Gerora, etxe zahar bat okupatu zuten Nabarrería

kalean, baina eraikinaren egoeragatik alde egin behar izan zuten. Bertze eraikin batzuk okupatu ostean, Armadaren kuartela izandako etxe-ko sukalde eta jantokian sortu zuten gaztetxea. Orduetik hainbat kontzertu, ekitaldi, ikastaro eta hitzaldi antolatu ditu Gazte Asanbladak, eta joan den asteburuan hirugarren urtemuga ospatu zuten.

Udalak, berriz, eraikin berri bat jarri nahi zuen martxan 1997an. Eraikinak «inteligentea, bioklimatikoa eta moderno» izan behar zuen. Enpresa bakar batek -Cosegarrek-

onartu zituen Udalaren lan baldintzak, 161 milioi pezeta- ren truke. Orain enpresak bertan behera utzi ditu lanak, Udalak obren adjudikazioa atzeratu baititu. Hauteskundeek beste egoera bat ezarri dute Lizarran, eta udal berriak erabaki beharko du gaztetxearen etorkizuna. Inork ez daki zer gertatuko den. Gaztetxea amaitu egingen da? Zenbat diru gehiago gastatuko da bertan? Nork kudeatuko du? Galdera asko dira, eta erantzuna denborak ekarriko du.

→ Kristina Berasain

Azkarate ● Sanferminetako senide txikiena

EZ IRUÑEKOAK ETA LESAKOAK bezain ezagunak, baina horien parekoak badira Azkarateko jaiak. Traje zuri eta zapi gorri gutxi ikusi ohi da bertan. Iruñekoei aurrea hartu nahian edo, bihar 18:00etan botako dute txupinazoa, umeen jolasen aurretik. Herrian haur gutxi diren arren, ingurukoak ere hurbilduko dira eta talde koskorra bilduko da. Gero, helduek Balerdi elkartearen afalduko dute; 21:30etan. Ostean, dantzaldia Xuhat trikiti taldearekin.

Igande eguerdian, hamaiketako dago iragarrita. Arratsaldean, pilotak hartuko du lekukoa. Herriko pilotalekuan frontis modura elizako pareta du-lau t'erdiko afizionatu partidua izango da Azpirotz eta Agestaren artean. Ostean, Jaurerri eta Berastegiren trikiti doinuak izango dira.

Baina egunik garrantzitsuena, asteazkena izango da. Uztailaren 7a izanik, azkaratearrek ere goretsi nahi dute bere patroia. Hala, ohitura zahar bati helduko diote; Balerdi magaleko ermitarainoko prozesioari. Hamaiketaren hasiko da meza, eta bidean dantzari, txistulari eta trikitalariak izango dituzte lagun erromesek. Herrira bueltatzean, Astunalde dantza taldearen emanaldia, Agirre eta Lazkano bertsolarien saioa, eta aizkora apustua plazan. Laja eta Mikel trikitalariarekin amaituko da festa.

→ Urko Aristi

denbora pasa

XAMAR



Duela hogeitau urte, Nafarroa guziz berezirik ikusi nahi zutelarik, zeuden «lotura» oro hausten hasi ziren.

Burura heldu zaizkidanen artean Mendi Federazioa dago, Iruñeko Hizkuntz Eskola (Billokoaren menpe zen eta segidan Zaragozakoarenean eman zuten), telebistako eguraldiaren mapa... eta hala zerrenda luzea.

Nik dakidalarik bedere, behin bakarrik jo dute gibelera ohiko bilketa berriz osatuz: gazta munduan.

Idiazabal labelaren menpean Nafarroako gaztak ere karrikaritzen zituzten; funtsean Aralar-Urbaşa-Andia inguruko artzainek egin gazta, mota bera baita. Baina Nafar Gobernuak ezin permititu

Herriaren gazta

zuen holakorik, ezkauna, eta label berria asmatu zuten: Urbasa-Andia gazta.

Prentsa aintzineko bat eta aintzina. Zer dugu oino desegiteko...? Real Automóvil Club Vasco-Navarro, Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro...

Baina «gaztafera» ez zen fini; hots, Idiazabal famatuak sosak ditu ematen, eta label berriak ez, atx! Nafar ekoizleek (botoa normahiri ematen dakotelarik ere) Idiazabalera itzuli nahi zuten, eta lortu ere, gobernu politika guziaz, ixil-ixilik, pikutara igortzen behin bedere. Nago ez ote genukeen urteoro ospatu behar Noaingo batailaren gisan.

Gauza da orai berean Orreagan ere hasi direla

Idiazabal gaztaren egiten. Ba, Orreagatik hasirik tokitan dago Idiazabal. Berdin zaio: Idiazabal da kontsigna, heda dezagun ba. Baxenafarro hortan... ez zuten komenigarriago Idiazabal gasnaren egitea Le brevis du Pays eta holakoen orde? Eta Xiberuan? Saltzen bada, xiberutarrek ere ez dute arazo nimiñorik izanen.

Bistan da, biltzen gaituena Idiazabal gazta da, Santa Grazitik Bilboraino, Donapaleutik Tuteraraino gazta/gasna ber-bera.


Zenbaiten euforia ikusirik ez da arras egokia izanen, baina neri ez zait bertzerik bururutzen hauteskunde emaitzak jakin ondorean: Herriaren gaztan oinarriturik Gaztaren Herria.

Bera ●

Bidasoako paisaiak ikusteko aukera

Maria Jesus Petrikorenak sorterriko inguruak islatu ditu bere margoetan

Bidasoako paisaiak bildu ditu Maria Jesus Petrikorenak bere margoetan bakarkako bigarren erakusketa honetan. Uztailaren 18a bitarte ikusi ahal izanen dira Igantzin sortu eta Alkaiagan bizi den emakume honen lanak Berako Kultur Etxean.



Petrikorenak bere sorterri inguruan dauden parajeak bildu ditu.

● ARTXIBOKOA

BERTAKO JENDEARENTZAT, ZEIN kanpotik datorren anitzentzat, aski ezagunak dira Bidasoako paisaiak. Margolarien artean ere ohitura handikoa da Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoa banatzen dituen ibaiaren bazterretako irudiak hartu eta margo bidez irudikatzea. Horrela egiten du Maria Jesus Petrikorenak ere. Gustukoa duen paisaiaren zertzeladak ikatz-ziriz irudikatzen ditu, burutan ongi hartu, eta, ahal bada, argazki

batean ere. Etxeko estudioa erabiltzen du kanpoan ikusitakoa oihal gainean paratzen.

Orain hamar urte ekin zion margotzeari. Irunera jo zuen margotzen ikastera, eta zenbait urtez han oinarriak hartu ondoren, bere kabuz segitu

zuen. Beti gai bertsuak: paisaiak. Teknika ere, nagusiki, bakarra erabiltzen du: olio. Hori du gustukoaren Petrikorenak. Berako lantegi batendako josten pasatzen zituen orduak eta orduak, eta horrek margorako asti guti uzten zion. Bien artean hautatu be-

har, eta margoketa aukeratu zuen. «Josten ibiltzen nintzen, eta hura uztea pentsatu nuen, margotzeari denbora gehiago eskaintzearren», erran digu.

Bigarren erakusketa

Orain hilabete batzuk paratu zuen bere lehendabiziko erakusketa, Irunen. Horrek aitzinera segitzeko animoak eman, eta joan den astean ateak itxi dituen Uda Berri erakusketan bertze 60en bat margolariarekin atera koadroak zintzilikatu ondok, berriz ere Berako Kultur Etxean paratuko ditu. Hori izan da bertze margolari batzuekin koadroak erakusgai paratu dituen lehenbiziko aldia. Berako Kultur Etxean orotara 31 lan paratuko ditu. Gehienak neurri bertsukoak, tarte-ko neurrikoak. «Neurri horretan aritzeko ohitura dut eta», erran digu. Gaur zabalduko da erakusketa, eta hilaren 18a bitarte goiz eta arratsalde egonen da idekia, Berako Kultur Etxean, goizeko 10:30etatik 13:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara.

→ Jon Abril



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

ADI Sakana

Emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrei buruz erreportaia bat egin du **Guaixe** hilabetekariak bere azken zenbakian. Aldizkariak ADI Sakana elkartearen lehendakari Karmele Lopez elkarriketatu du, gai horretaz mintzatzeko asmoz. Lopezek aldizkariaren elkartearen helburuak azaldu ditu: «Banatzen edo dibortziatzen doan edozein emakumeri laguntza eskaintzea. Dibortziatzen zozanean ez dakizu nondik hasi, bakar-bakarrak aurkitzen duzu zeure burua. Lanik ez eta seme-alabak dituzunean latza da banatzea. Gainera, dibortziatzen zaren oraindik gure gizarte honetan

pertsona arraroa zara. Familia egitura desagitea ez dago ongi ikusia».

Elkarteak hainbat mahai-inguru antolatuko ditu berriki, eta, besteak beste, erasoak izan dituzte mintzagai; ekimen horren balantzea egin du ADI Sakanako lehendakariak **Guaixe** adizkarian: «Oso emankorra izan zen. Bertaratu ziren emakumeek galdera asko egin zituen abokatuari. Hainbat gai argitu ziren eta guztiok pozik abiatu ginen etxera». Eraso eta tratu txarrei buruz duen iritzia plazaratu du Karmele Lopezek: «Uste baino gehiago gertatzen dira erasoak. Ofizialki aurkezten diren baino gehiago. Gainera,

gaur egun lege aldaketa gertatzen ari da eta, beraz, hemendik aurrera eztabaida gogor edota tratu txarren berri duen edozein salaketa jartzera behartuta dago. Non? Herriko Udaltzaingoan bertan adibidez. Eztabaidak maiz ez dira tratu txar bezala hartzen, baina kalte psikologiko handia eragiten dute, eta horixe da gainditzen zailena. Gurean lortu nahi dugun beste gauza bat zera da: legearen arabera Guardia Zibilaren kuartelak emakumeri laguntzeko departamentuak jartzera beharturik daude, eta, beraz, Altsasukoan emakumezko langileak jarritzen lortu nahi dugu».



urdai
aren
mintzoa


Xabier Larraburu

Arteta

Badakit paso egin behar dugula baina, barkatuko didazue, esan behar dut: Aurelio Arteta nazkante hutsa da. Bai, bai, arrazoia duzue, hobe kasorik ez egitea, ez erantzutea, bertan uztea, baina tira: zutabetxo hontan idaztearen eta isiltasunaren artean ez dago alde handirik ere, eta, hortaz baliatuz, berriz esango dut: Aurelio Arteta nazkante hutsa da. Niri bost euskarari buruz esaten dituenak, niri bost Nafarroari buruz esandakoak. Kontua da haritik tiraka hasten naizela bere panfletoak irakurtzerakoan eta horrek min egiten dit. Ikusten baitut irakasleria, Unibersitatekoa ere, zakarra dela. Zakarra baino zakarragoa. Inongo kalitaterik ez dutela, ez pertsonala, ez idazle bezala, ez jakintza mailan: deus ez. Hutsaren hurrengo dira. Hurrengo ez, aurrekoa. Gero ikusten dut zer gauzatan ematen duten diru publikoekin ordaindutako denbora eta astia eta, benetan, oka egiteko modukoa iruditzen zait. Ni txotxolo hutsa naizenez orain arte pena ematen zidan Unibersitatean sekula ez izan. Orain, ez dut esango pozten naizela, baina jada berdin zait. Adibide bezala bat: ikasleen joera. Denek, denek, esaten dizute: begira nik horrela planteatzen dut unibersitatearena: bost urte dira, agoantatu behar da, egunen batean bukatuko da eta. Hauexek dira derrigorrezko zerbitzu militarrean esaten ziren hitz berberak. Eta zer ostiatan ibiltzen dira ba Unibersitateko irakasle hauek, zer lan egiten dute erantzun horiek beste tankera batekoak izan daitezkeen? Deus ez. Pribilegiatu batzuk direla, hori da dakiten gauza bakarra eta hortara ematen dituzte dauzkaten indar apurrak. Bitartean hezkuntza, hizkuntzak, kultura, ikasleak eta liburutegiak beraie bost. Baina zer ostias esan dezake etikari buruz bere ikasleekin poto egiten duen batek? Eta ez al da poto egitea ikasleen Unibersitateko jarrera ezkorra? Hori irakasleei egindako eguneroko azterketa da eta egunero-egunero penkatu egiten dute. Aprobataua gainontzeko gauza guztietan daukate: boterearekiko atxikimenduan bikain, soldatarekiko kontzeptualizazioan *cum laude*, zinismo kutrearen hezkuntzan doktore. ●

Indart anaien ganaduaren eraman handia

Legasako Perunea baserriko ganaduzaleok primerako azienda hazten saiatu dira urteetan



Inaxio eta Juan Antonio Indart anaiak oso ganaduzale ezagunak dira Euskal Herrian. Ez alferrik Nafarroako Gobernuaren edo nazioartekoen hainbat sari jaso dituzte duten azienda ederragatik. Gaztetatik horretan arituak, sekretua belardi onak izatea eta goiza argitzearekin batera lanean hasi eta gauera arte aritzea omen da.

dira, eta joan den urtean Portugalen egin zen Munduko Erakusketara ere eraman zituzten. Nafarroako Gobernuak ematen dituen sariak ere maiz jaso dituzte. Azkenekoak Ultzamako Larraintzar herrian zaldiengatik jasotakoak dira.

Baina sariak baino gehiago dituzte abelburuak eta horiek hazteko lur emankorrek.

Zaldiak eta behiak nahiago

Haragitarako Burgete arrazako gaztain koloreko zaldi motzak eta atzealde zabalekoak dituzte begiko Indartarrek, haiekin hasi baituzten lanean. Neguan Atetzen, Beuntza-Larreko jaurerrian, duten 160 hektareako sailean edukitzen dituzte (Ultzamarekin muga egiten du), eta udan Pirinioetako maiatz belar heze eta goxoa bazkatzea eramatean dituzte. «Joan den urtean ardiak behorrek batera eraman genituen Pirinioetara. Formigalگو mugaraino, Canfrancera. Enkantean hartzen ditugu duela 30 urtetik lurrok, anitz hektarea dira, baina uda oso laburra. Pilarikatan behiti ekarri behar dira», azaldu du Jose Antoniok. Hara Leireko behorrak eta behiak eramaten dituzte. Joan den astean 300 behor buru eraman zituzten, eta beste 600 buru dituzte gizenzen Leireko monasterioaren ondoan duten 200 hektarea baino gehiagoko lursaillean, Beuntza-Larreko jaurerrian eta Arabako Lahozko eta Valderejoko parke naturaleetako 530 hektareatik goitiko parajeetan. Han behorrak eta zaldiak ez ezik, behiak ere badituzte.

Zaldi haragia Italiara saltzen dute, eta anitz buru Euskal Herrian erosi eta gizenzen dituzte. Behia, aldiz, hemen saltzen dute. «Zaldia anitz saltzen dugu, astero 60-70 bu-

ru, aurreko astean saldu genituen 90. Eros-tun finkoak baditugu, zaldi onak dira eta ongi gizenzen ditugu. Nahi bagenu, gehiago salduko genituzke, gertatzen dena da behar dela gizendu eta lan handia da», dio, zaldiak Beuntzan biltzen saiatzen den bidenabar. Bestalde, 500 behi buru dituzte eta mila bat ardi. Haragitarako saltzen dituzte horiek ere, eta zezenetarako ere franko poliki, urtean 50 bat saltzen dituzte hazitarako, dela Euskal Herrian, dela Espainian. Ferietan ere ibiltzen dira, baina motel samar omen daude. «Ferietan

Indartarako gazteentzako ikuskia. OSKAR MONTERO

bajatu dira arrunt, eta etxetik saltzen da gehiena, tratuka. Ferietan berriketa gutxi izaten da». Beraz, ez da nolanhikoa Indartarren azienda: mila ardi, 500 behi buru, asko udaberrian umetuak, eta 900 zaldi eta behor dituzte.

Gakoa: prozesu guztiaren kontrola

Orain ahoz aho dabil animaliei gizenzeko di-xina eta auskalo zerekin egindako pentsua ematen zaiela. Berean horrelakorik ez dela

Gaueko lanbukatu zen

Bertizaranan, Iparraldeko mugatik gertu egonik, gaueko lana ohikoa izaten, baina garaia haiek bukatu direla dio Inaxio Indartek. Autoan gau-ri behar dira», azaldu du Jose Antoniok. Hara Leireko behorrak eta behiak eramaten dituzte. Joan den astean 300 behor buru eraman zituzten, eta beste 600 buru dituzte gizenzen Leireko monasterioaren ondoan duten 200 hektarea baino gehiagoko lursaillean, Beuntza-Larreko jaurerrian eta Arabako Lahozko eta Valderejoko parke naturaleetako 530 hektareatik goitiko parajeetan. Han behorrak eta zaldiak ez ezik, behiak ere badituzte.

Bertizaranan, Iparraldeko mugatik gertu egonik, gaueko lana ohikoa izaten, baina garaia haiek bukatu direla dio Inaxio Indartek. Autoan gau-ri behar dira», azaldu du Jose Antoniok. Hara Leireko behorrak eta behiak eramaten dituzte. Joan den astean 300 behor buru eraman zituzten, eta beste 600 buru dituzte gizenzen Leireko monasterioaren ondoan duten 200 hektarea baino gehiagoko lursaillean, Beuntza-Larreko jaurerrian eta Arabako Lahozko eta Valderejoko parke naturaleetako 530 hektareatik goitiko parajeetan. Han behorrak eta zaldiak ez ezik, behiak ere badituzte.


Bertizaranan, Iparraldeko mugatik gertu egonik, gaueko lana ohikoa izaten, baina garaia haiek bukatu direla dio Inaxio Indartek. Autoan gau-ri behar dira», azaldu du Jose Antoniok. Hara Leireko behorrak eta behiak eramaten dituzte. Joan den astean 300 behor buru eraman zituzten, eta beste 600 buru dituzte gizenzen Leireko monasterioaren ondoan duten 200 hektarea baino gehiagoko lursaillean, Beuntza-Larreko jaurerrian eta Arabako Lahozko eta Valderejoko parke naturaleetako 530 hektareatik goitiko parajeetan. Han behorrak eta zaldiak ez ezik, behiak ere badituzte.

gertatzen dio Indart gazteenak. Bere egindako belarra eta artoa ematen diete animaliei. Siloan sartutako maiatz belarra eta lehortutako urribelarra. Horretaz gain, zaldiei pentsua ematen diete gizenzeko hondarrea hilabete edo hilabete eta erdiz, zamatu-tako garagarra. «Zaldiak arrunt delikatuak dira, bizkorak dira kanpoko eta mendiko belarrarekin, baina pentsuan arrunt delikatuak dira, hiltzen dira ez badiezu ona ematen agudo. Kolikoekin eta», azpimarratu du Jose Antoniok.

Baina bazka ez ezik, hemengo arrazak gordezaren aldekoak dira. Indartarren irudiko «kanpoko ona dela dirudi, baina azkenean hemengo arraza da hoberen-hoberena. Haragitarako behintzat hemengo bezalako haragirik ez da inon jaten ahal», gaineratu du.

Hainbeste azienda eta lur moldatzeko bi anaiak hamalau langile dituzte, eta azpigitura onak. «Baditugu ukulu onak, eta maneja-tzen gara. Lan egin beharra dago gogor. Neguan eta udaberrian, umetzeko momentuan, izaten dugu lan gehien».

Hainbeste ganadu on hazteko eta hainbeste sari irabazteko gakoa lan prozesu guztia kontrolatzean eta dutena zaintzean omen dago. «Hazitarako abereei begiratazea da inportanteena, eta txarrenak kendu. Hemen bat bestea baino gehiago ez gara, denak igualak gara», dio Ultzamako mugan duen jaurerriko pagaditik behiak eta behorrak ateratzen saiatzen ari den bitartean. Auto lur-orotakoan Beuntza-Larreko larreak zeharkatzen ari gara. Pirinioetako arrazako bi behi aurkitu ditu. Guztiak zenbatuak daude, zauriren bat edo badute go-goan hartu eta sendatzeko. Baten batzuek bakarrik dute izena. Kanfran da horietako



Pirinioetako arrazako behi asko umetu dira udaberrian jaurerrian. OSKAR MONTERO



Burgete arrazako zaldiak dituzte gustukoan Indart anaiak. OSKAR MONTERO

Inaxio Indart:

«Nire denbora guztia honetan daramat. Aita igual-igual aritzen zen, gu bezala»

bat, kastako behia, behi gogorra, diotenez. «Hori gelditu zen neguan ezin bildurik Pirinioetan, Canfrancen, eta hurrengo udaberrian joan ginen eta han zegoen umearrekin, negu guztia han igaro zuen gaixoak, eta horregatik paratu genion Kanfran izena», azaldu du umoretsu Jose Antoniok.

Behi gogorrak dira, bazka dute eta gizenak eta guri-guriak daude. «Ferietara joan baino lehen domatu eta meioratu egin behar dituzu, bazkatu. Behi on batek 800 kilo pisatzen du, eta hazitarako txekor batek, adinaren arabera; hamasei-hamazazpi hilabetetan baditugu 800 kilokoak salduak», gaineratu du. Zaldi onak, berriz, 800 eta 1.000 kilo artean ibiltzen dira.

Pirinioetako arrazako kanpora begirako adar luzeak ez dituzte, eta dituzten behien aldean zaldiak arrisksuagoak dira. Antonio Indart hiru aldiz jo dute, batean kopetaren eskuinaldean eta Opuseko ospitalean egon behar izan zuen. «Arrisksuak dira batzuetan. Behiak lasaia goak dira, eskutan franko poliki erabiltzen baititugu etxeratu egiten direlako,

eta zaldiak ez, kanpoan sultu ibiltzen dira», azaldu digu anai gazteenak. Lana eruz egiten dute Indartarrek, goizeko sei etan jaikitzen dira, eta bi egunez behin azienda ikuskatzera joaten dira, jaurerria, Arabara edo Leire ondo. Ganaduarekin dirua egin duten arren, etorkizuna ez dela hain oparoa diote. «Semea ibiltzen da beti hemen, eta hartuko du, bestenaz kanpora lanera joatea ere ez da ona izaten. Baina anitz egin behar da lana, eta anitzetan desilusio handiak izaten dituzu. Ez da lehen bezain erraza. Orain kontrola sobera eta papeleoa. Haztea baino gehiago kostatzen da papeleoa. Sobera da», dio kexu Jose Antoniok Arabako bidea hartzen duen bitartean.

→ Irene Arrizurieta

Fermin Perez-Nievas

☉ Kazetaria

«Alderdi Karlistaren printzipioak sozialistak ziren jatorrian»

Fermin Perez-Nievas kazetari tuterarrak karlismoaren historia bildu duen liburu bat argitaratu berri du: *Contra viento y marea*. Egilearen ustez, karlismoa eskuinarekin uztartu duten arren, haren printzipioak sozialistak izan dira.

FERMINI FAMILIATIK DATOR-
kio karlismoaren historia jakin nahia, aita Euskal Herriko Alderdi Karlistako burua baitu.

■ **Zergatik *Contra viento y marea* izenburua?**

Liburuan «behin eta berriro garaituak, baina inoiz ez suntsituak» esaldia aipatu dut. Hori izan da karlisten betiko irudia. Beti galdu izan dute, haien esku ez zeuden arrazoiengatik: traizioa egin zien jeneralaren bat zela-eta, gobernu demokratiko batek ez zielako onartu alderdia...

■ **Liburuak karlismoaren inguruan dauden aurreiritziak urratu nahi omen ditu. Nork ezarri ditu aurreiritzi horiek?**

Gaitzaren jatorria Espainiako Gerran alde frankistan borrokatu izana da. Oso hutsegite handia eta larria izan zen, batez ere gero Alderdi Karlistak izan zuen irudientzat. Egia da Errepublikan erlijioari eman zitzaion trateragatik jarri zirela alde horretan. Hainbat eliza hartu zituzten, eta Alderdi Karlistentzat erlijioa zutabeetako bat zen eta ez zuen frankisten aldera joan beste irtenbiderik izan. Hala ere, EAJrekin kontaktuak izan zituzten 1971n Lizarrako Foroan, eta, hasiera batean, Errepublikaren etorrera aldarrikatu zuten, Alfonso XIII.a botatzeko aukera ikusten zutelako. Gaitza hortik dator. Gogoratu behar da 60 eta 70eko hamarkadetan Iurramendi alderdi demokratiko guztien bilgune zela: Francoren diktaduraren aurka borrokatzen

zen oro joaten zen, eta haren erretratuak ere erretzen zituzten, eta hori ezin zitekeen beste inon egin. Baina aurreiritziak hor jarraitzen du eta hori da karlismoak jaso duen herentzia. Jendeak karlismoa eskuinaren parte zela onartu zuen, eta oso zaila izan da hori ezabatzea.

■ **Liburuan karlismoa sozialismoa dela aldarrikatzen duzu. Zertan oinarritzen zara hori esateko?**

Karlismoa familiatik dator kit eta Tuterako lagun taldeak beti aurpegiatu izan dit Alderdi Karlistak izandako aldaketa, eskuinekoa izanik ezkerretera pasa zela. Hortaz, frogatu nahi izan dut Alderdi Karlistak ez duela horrelako aldaketarik izan eta garapena izan zela eta, jatorrian, XIX. mendean, printzipio sozialistak zituela. Unamunok espartinezko sozialismoa, nekazarien sozialismoa zeritzon karlismoari. 1832-33an Fernando VII.aren aurka altxatu zirenak nekazariak ziren.

Kontua ez zen lege dinastikoengatik beste errege bat inposatzea soilik, bazegoen arrazoi gehiago: ezabatuz joan ziren foru eskubideak, desamortizazioengatik lurrrak kentzen zizkieten, eta Frantziako Iraultzak arrazoi erlijiosoak ahuldu zituen.

■ **Francorekin ados ez egon arren, harekin jarraitu zuten.**

Gerra Zibilean 1937tik aurrera tirabira asko izan zituzten Francorekin, Falangea eta Alderdi Karlista batu zirenean eta Falange Tradi-

zionalista bilakatu. Batu zirenean ezadostasun handiak izan ziren, eta 1938ko urriaren 12an Francok Arrazaren Eguna inposatu zuenean, karlista eta erreketen protestak izan ziren. Gauza askok frogatzen dute 1940tik 1960ra bitartean Francorekin izan zen etengabeko tirabira: kartzeletuak izan ziren, Zirkulu Karlista eta egunkari karlistak itxi ziren.

■ **Nola ikusten du alderdiak egungo egoera?**

Zail samarra. Sistema bipartidista batera heltzeko gutxi falta da eta jendeak paso egiten du, ez du ilusiorik eta kezagarria da abstentzio malla.

«Nafarroan ez da karlismoaren historia ezagutzen. Karlismoa izan da Euskal Herriko historiaren oinarritzko motorretako bat, karlismotik nazionalismoa atera delako, eta independentziaren zentzua ere»

■ **Ezjakintasuna ere aipatu duzu. Ez dugu ezagutzen gure historia?**

Nafarroan ez da ezagutzen karlismoaren historia. Karlismoa Euskal Herriko historiaren oinarritzko motorretako bat izan da, karlismotik nazionalismoa atera delako, eta independentziaren zentzua ere bai. Karlista askok HBn bukatu zuten, edo ETAko kide izan ziren.

■ **Egun, nolako indarra du motor horrek?**

Hori landu nahi dudana beste zati bat da. Liburuak 1976ko Iurramendiko gertaerekin, Rikardo eta Anianoren



MIKEL SAIZ

hilketekin, eta 1977an Alderdi Karlista legeztatu ez zenean bukatzen da. Aldiz, Alderdi Komunista, gaizkien ikusia zegoena, legeztatua izan zen. Baliteke Alderdi Karlista ez legeztatzea Francok inposatutakoaren alde ez baizik beste monarka baten alde eginen zutelakoan. Orain motorra nahiko lehorra dago. 590 boto izan ditu Nafarroan azken foru hauteskundeetan, baina egun gehien ikertzen ari diren historiaren garaietako bat da.

■ **Beraz, kezagarria da alderdia legeztatu ez izanak ekarritakoa.**

Bai, oso ordezkapen gutxi daukagu. Utopia asko dugun jendea gara, eta ez dut uste txarra denik. Politikan dena da utopia. Lehenengo hauteskundeetara Agrupacion Montejurra izenarekin joan ziren, eta, gezurra badirudi ere, askok ez zuen Alderdi Karlistarekin identifikatu. Estatuak laguntzak ematen dizkie boto gehien lortzen duten alderdiei. Hasieratik bozak lortzen ez badituzu, bigarren hauteskundeetan ez duzu besteek bezainbeste diru publizitatea eta behar bezalako kanpaina egiteko.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Fermin Perez-Nievas kazetari tuterarrak 27 urte ditu. Ikasketak Salamancan egin zituen, eta geroztik hainbat komunikabideetan egin du behar: SER eta COPE irrati kateetan, edo *Diario de Navarra* egunkarian. Egun *Diario de Noticias* egunkari nafarraren Tuterako delegazioan ari da lanean, eta Euskadi Irratiko Erriberako berriemate ere bada.

Aita Euskal Herriko Alderdi Karlistaren presidentea izanik, etxean hainbatetan entzun eta bizi izan du Karlismoaren historia. *Contra viento y marea* liburuarekin, «nekaezinak eta utopikoak» izan diren karlistei omenaldia egin nahi izan die.

Karlismoak egun indar gutxi duela onartu arren, liburuak jarraipenik izanen duela dio. 1977tik 2000. urtera arteko Karlismoa jorratzea da kazetariaren asmoa; «Alderdi Karlistentzako garai zaila delako. Nola aldatzen joan den alderdia, eta nola eta zergatik joan den jendea», dio. Ironiaz, beste zerbait ere gaineratu du: «Esaten da edozein nafarri burua berotuz gero txapela ateratzen zaiola, baina politiko askok aire karlistak izan dituzte, edo eurak ere Alderdi Karlistik etorri dira».



Nafar Kronika

Pello Goñi

Furby foralak

Gure mundu txiki hau, aurrera egin ahala gero eta artifizialago bilakatzen dena, ilusioan oinarritzen da hein handi batean. Zinemaren eragin saihestezina, zalantzarik gabe. Azken ilusio ultramodernoak Hollywoodetik etorri zaigu, hain zuzen ere. Nondik bestela. *Matrix* du izen, eta errealtate birtuala, mamia. Horixe baita joera. Errealtatearen itxura da zinez garrantzia duena, benetakoa izan ala ez. Kazetaritzan esaten den bezala, «errealtateak ez diezazula izorra erreportaiari on bat». Hemen, hauteskundeak egin eta gero, batzuei errealtateak ez die izoratu amestutako paisaia eta denak berdin edo ia berdin segitzen du. Gakoa? Jostailugintzan asmatutako azken berrikuntza: Furby «popine». Pelutxe interaktiboa da, mintzatu, kantatu eta jostatzearaz landara, beste Furbiekin komunikatzeko gai dena. Ekimen propioa omen du eta mila bat esaldi desberdin egiten ahal du. Hortaz, autonomo samarra da. Alegia, ekimen propioarena bazterrean uzten badugu, herri honetako politikoko batzuk bezalakoa da zoriarekin pelutxe hori. Asmakuntza egokia lur honetarako. Izan ere, hemen errealtate birtuala, edo antzeko zerbait, ordenagailuetatik kanpo ibiltzen da maiz, ate joka, batzuetan Aragoiko Agustinarren itxura hartuta, bestetan Aitor bilakaturik, beti bere alde egiteko eskatuz. Gure Furby foralek mila esaldiko errealtatea eraiki dute eta errealtatea biribila denez gero, harekin bueltaka urteak ematen ditugu, haurrek uztaiarekin bezalaxe.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Marea taldeak kontzertua emanen du gaur, Tíbet garagardotegian.
- **Lizarr:** EH Sukarrak kontzertua eskainiko du bihar, gaztetxean, 23:00etan. Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Tahures Zurdos taldeak kontzertua emanen du heldu den asteazkenean, Sarasate pasealekuan, 24:00etan. Ostegunean, berriz, Ruper Ordorika eta Joxemi Martis ariko dira leku eta ordu berean.
- **Iruñea:** Javier Garaialde eta Ramon Garcia Jazz Quintet ariko dira gauerdian, San Jose plazan, eta Triana Pura Yamagutxi plazan, ordu berean.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** *El agua como medio* erakusketan, Gipuzkoako Bidasoako zazpi artistaren 35 lan ikusteko aukera dago Arizkunenea kultur etxean, uztailearen 12a arte.
- **Lizarr:** Gustavo de Maeztu museoan Elena Asinosen lanak ikus daitezke hilaren 30a arte.
- **Zirauki:** Antonio Laitaren lanak ikus daitezke uztailearen 10a arte Margolariaren Etxean.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** El Tricicle taldeak *La venganza de Don Mendo* lana antzetzuko du gaur, bihar eta etzi, 20:00etan, Gayarre antzokian. Sarrerak 2.000 pezeta balio du.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Urtxintxa Aisialdirako Eskolak ikastaroa antolatu du udako. Ikastaroa abuztuaren azken astean hasiko da eta irailaren 30ean bukatuko. Klaseak goizez izanen dira, 09:00etatik 14:00etara. Par-

taide kopurua mugatua da. Interesa duenak dei dezala 948-21-14-78 telefonora, goizez.

- **Iruñea:** Hizkuntz Eskolako Eskola Kontseiluko ikasleek abuztuarako klaseak antolatu dituzte. Ikasiko diren hizkuntzak alemana, frantsesa, in-

gelesa eta euskara dira. Talde bakoitzean hamabost lagun egon daitezke, eta egunero bi orduz irakatsiko dute, 09:00etatik 11:00etara. Klaseak abuztuaren 16an hasiko dira eta hilaren 31 arte iraunen dute. Matrikula 8.000 pezetakoa da, eta izena

emateko epea ostegunean bukatuko da. Informazioa 948-20-65-63 telefonoan.

- **Iruñea:** Klown ikastaro trinkoa antolatu du Narrentrepe teatro taldeak. Izena emateko epea uztailearen 10ean bukatuko da 948-24-14-61 telefonoan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Non soñan más que cand@ turmen.

Lo egiten dutenean baizik ez dute ametsik egiten.